



Erika Rico eta Jorge Gravalos jai batzordeko kideak, Harria parkean.

Altzako Serafinak, aspertzeko astirik gabeko «jai ganberroak»

Hirugarrenez antolatu dituzte Altzako Arriaga zonako Serafinak, eta dagoeneko auzotarren artean «errotuta» daude jai horiek, antolatzaileek azaldu dutenez. Egitaraua bete-beteta datoz aurten: «72 jarduera antolatu ditugu guztira!».

Beñat Parra Rodriguez

Atzera kontaketa hasi dute Altzan, Jolastokietako jaiak bukatu eta berehala baitatuz Arriaga zonako Serafinak, Altzako uda garaiko azken jaiak: «Urtebete-ko lana egin dugu, baina oso pozik gaude, jaiak hasteko gogoz», adierazi dute jai batzordeko kide Jorge Gravalos eta Erika Ricok.

«Guztira, 72 jarduera antolatu ditugu», gaineratu dute, baita argitu ere jaiak zenbait berritasunekin datozela aurten. Ohiko legez, Harria parkea izango da jai gune nagusia, baina festa giroa Arriagako zazpi auzunetara zabalduko da: Erroteta, Arrizar, Arriberri, Santa Barbara, Elizasu, Los Boscos eta Darieta.

Txupin, Altza Parade eta beste

Txupinen bila joanda hasiko dituzte jaiak, jai batzordekoek azaldu dutenez: «Gasteizen Zeledon eta Bilbon Marijaia dituzten moduan, guk Txupin daukagu. Kuadrillak Elizasun bilduko dira, eta Txupin balkoi bate-tik jaitsiko da, iaz hoberen apaindu-takoaren saria jaso zuen balkoitik. Kalejiran joango gara Harria parkera, han Txupin igotzeko eta jaiari hasiera emateko».

Haur, gazte zein helduentzako jarduerak antolatu dituzte jai batzordekoek: «Egitarau zabala prestatu dugu, mundu guztiak bere lekua aurki dezan hemen». Ekimen guztien artean, zenbait berritasun

nabarmendu dituzte: *castell* ikastaroa igande eguerdian, auto klasikoek topaketa larunbat goizean eta Altza Parade egitasmoa, besteak beste. Azken hori «xelebrea» izango da, jai batzordekoek diotenez: «Kuadrillen kalejira bat da, eta kuadrillek denbora daramate prestatzen. Sekulako ikuskizuna izango da eta sorpresaz beterik egongo da».

Hiru urteotan, jaiak auzoan errotzea lortu dute: «Jendearen egutegian sartzen dira dagoeneko»

Musika eskaintza ere oso zabala izango dela zehaztu dute Gravalosek eta Ricok: «Arriaga Rock jaialdiak zortzi kontzertu ekarriko ditu auzoko tabernetara, Andoni Ollokiegi bere bandarekin etorriko da plazara eta txaranga eta kalejira ugari edukiko ditugu kaleetan barrena».

«Ondo pasatzea» da jaien helburu nagusia, eta denek ondo pasatu ahal izateko, batzordeko kideek azaldu dute une oro kamiseta berdea eta zapi beltza —jaietako ohiko jantzia alderantziz da— eramango duten zenbait kide egongo direla jai gunean, «edonork edozein arazo badu, laguntzeko». Ildo horretatik, «ez dugu inolako erasorik onartuko», nabarmendu dute.

«Probatu ez duenak ez daki zer den hau»

Erreportaje honen hasieran aipaturiko Altzako auzuneei jai propioak izan zitzaten jaio ziren Serafinak, eta hiru urteotan, auzoan errotzea lortu dute: «Jendearen egutegian sartzen dira dagoeneko, jendeak gogo asko zuen hemen jaiak ospatzeko».

Hala ere, altzatarrak ez ezik, jai batzordekoek donostiar guztiak animatu dituzte jaietan parte hartzera: «Kanpotik datozen guztiek errepikatzen dute. Fermin Muguruzak zioen moduan, 'probatu ez duenak ez daki zer den hau!».

OSTEGUNA 24

18:30

Elizasutik hasita, Txupinen Bila Kuadrillen Kalejira, Taupada Samba batukadarekin.

Luntxa, Santa Barbarako Erretiratuen Etxean.

19:00

Broken Sneakers DJ-a, Piscis tabernan.

20:00

Lehiaketa irabazi duen balkoitik Harria parkera Txupin eramatea.

20:30

Pregoia Harria parkean, Boskotarrak elkartearen eskutik, bere 50. urteurrena dela eta.

Arriaga Rock Jaialdia, Arrizar tabernan: MK 33.

20:45

Txupina jasotzea Harria parkean eta 2026ko Serafinak jaiei hasiera emanez.

20:55

III. Balkoien Dekorazio Lehiaketako ikurren banaketa, Harria parkean.

21:00

Musika animazioa.

21:15

III. Argazki Lehiaketa. (Gaia: Jaiak).

OSTIRALA 25

18:00

Txokolate jana kiroldegiaren ondoan, Boskotarrak elkarteak antolatuta.

Jimmy & Joseam DJ-en *La Bolinga Sound System*, Arrizar tabernan.

18:30

Apar festa kiroldegian, Boskotarrak elkarteak antolatuta.

19:00

Arriaga Rock Jaialdia, Gresi tabernan: Boogie Van eta The Gu.

19:30

Kuadrillen aurkezpena Gautxori txarangarekin, Harria parkean, eta poteo popularra Roteta eta Arrizarren zehar.

Disco Tekno Mugikorra Elizasu eremuan: Broken Sneakers.

20:30

Sardina jate herrikoia, Santa Barbarako Elkartasuna auzo elkarteak antolatuta.

21:30

Arriaga Rock Jaialdia, Carrasco tabernan: Altza:Ratas.

22:30

III. Rap Jaialdia, La Terraza tabernan: R34M, ELC310, Gonza, Rafanorte, Orbe eta Laplaaeaso.

23:00

Dantzaldia Olloki Band taldearen eskutik, Harria parkean. Amaitzekoan, Pachanguero.

LARUNBATA 26

10:00

Bigarren eskuko azoka, Harria parkean.

10:30

Esposizio eta ibilgailu klasikoan I. Ibilbidea, Oleta Ikastolatik irtenda.

Haurren futbol eta saskibalo txapelketa, Oleta Ikastetxean, Altza Futbol Salaren laguntzarekin.

11:00

Gaztelu puzgarriak txikientzat Elizasun, BM supermerkatuak babestuta.

Pailazoan jaia, Bar Miradorren Ander Santxez Reyexekin.

12:00

Aurpegi margotzea, txapak eta eskulan tailerrak *El Rincon de Ametsen* eskutik, Riva tabernan.

Jimmy Cliff DJ-aren *La Bolinga Sound System*, La Palmera tabernan, egun osoan zehar.

12:30

Antzerkia: *Historias De Un Baul*, Trotamundos konpainiaren eskutik, Casaresen.

Donostiako Txistulari Udal Bandaren irteera.

14:00

Piknik herrikoia, Altzako zelaian (kiroldegiko igerilekuen atzean).

16:00

III. Tute Expres Txapelketa, Riva tabernan.

17:30

Danborrada. Irteera Boskotarrak elkartetik.

18:00

Dantzak Pauso-K eta Show Timeren eskutik, Casaresko plaza txoan.

Dantzaldia Santa Barbarako Erretiratuen Etxean, Jon Insuaren eskutik.

Tardeoa, Serranito Elkartearen, Mikel DJ-arekin.

Tardeoa, Next tabernan, Txomin DJ-ak alaituta.

Sagardo Eguna, Harria parkean, trikitilariak alaituta.

Erraldoi eta buruhandien irteera Harria parketik, dultzaineroez lagunduta.

18:30

Arriaga Rock Jaialdia, Ani tabernan: Ojos Que No Ven.

Arriaga Rock Jaialdia, Elizasun: Molten eta La Bona Dea.

DJ saioa, Rodriguez tabernan.

19:30

Yorvin Cisnerosen kontzertua, Santa Barbara tabernan.

21:00

Danborradaren etorria, Harria parkera.

21:30

Doako bingoa, Harria parkeko eszenatokian.

22:30

DJ saioa Harria parkean: Ostoa, Pabel eta Mario Garcia DJ-en eskutik.

00:00

Kuadrilla guztien argazki eroa, Harria parkean.

IGANDEA 27

10:00

Auditx Akularreko eremu naturaletik ibilaldia bertako balioak ezagutuz, Altza XXI Herri Ekimenaren eskutik, Tomasene Kultur Etxetik hasita.

10:30

II. Motorzale Ibilbidearen irteera Harria parketik.

III. Toka eta Bote Txapelketa, Santa Barbara-ko Elkartasuna elkartearen.

12:00

Ardo Eguna Harria parkean, Viguisaren eskutik.

Castell ikastaroa, Tomasenen.

12:30

II. Motozale Ibilbidearen geldialdia Harrian.

Kalejira Donostiako musika eta dantza eskolaren eskutik.

Zumba Happy Studio, Riva tabernan.

13:00

Arriaga Rock Jaialdia, Gresi tabernan: The Seo.

14:00

Kuskulen erreketeta, Riva tabernan.

14:30

Paella herrikoia, Harria parkean.

16:00

Doako bingoa, Harria parkeko eszenatokian.

III. Mus Txapelketa, La Terraza tabernan.

Jolasak familian, Riva tabernan.

16:30

II. Dardo Txapelketa, Canada tabernan.

17:00

Kuadrillen kalejira Harria parketik 3txulo txarangarekin.

17:30

Txokolate jana, Gurea elkartearen.

18:00

Euskal dantza: Herri Ametsa. Sevillanak: Alma, Corazon y Baile eta Habaneras.

19:00

Broken Sneakers DJ-a, Piscis tabernan.

20:00

Etorrera Harria parkera.

Balkoien Lehiaketako sari banaketa, Harria parkean.

20:30

Txupina jaitsiera Harrian eta kuadrillen desfílea Elizasuraino.

ASTELEHENA 28

Feriantei esker, feriek prezio merkeak izango dituzte.

